



Iritziak

Beste erreklamazio bat



ANA MENDIA
EMAGINA

Esandakoa. Beste erreklamazio bat jaso dugu ospitalean. Orri bat gehiago kortxotik zintzilik. Pandemiaren kontua dela eta bikote-kideei haurdunaldiko ekografietara sartzeari debekatu diegu eta bidegabekeria hori salatzen du idatzi du aita batek.

Atentzioa eman dit kontaerak eta, ke-xaren motiboa ahazteraino ia, gizonak bere eskaera azaltzeko aukeratu dituen hitzetan jarri dut arreta. Eskutitzak dio emakumea "bakarrik eta babesgabe uztea" ez dela zilegi. Ez dakit, akaso ni naiz kontua esajeratu duena, baina diskurtsoari nolabaiteko arrasto susmagarria hartu diot. Disney-ko azentua edo. Segitu dut itxaropentsu irakurtzen *plot twist* txundigarriaren zain, baina idatzia bukatzerako irakiten hasteko puntu-puntu dagoen esne gordin sentitu naiz. Egia da lehenagotik ere berotuta nengoela ginekologo *influencer* batek Twitter-en idatzitako txio hau tarteko: "Telefono bidezko nire lehenengo erditzea artatu dut. Aita heroi baten gisan portatu da. Lasai eta bare. Bere semea atera duela kontatuko du. Literalki". Bota eta lasai geratu, gainera. Eskerrak! Eskerrak salbatzaile ahalguztidun bik libratu duten bataila, ze nekez erdituko zen aipatu ere egiten ez duen emakumea bestela. Nekez irtengo zen haurra bere kabuz hura ateratzeko bere aitaren balentriarengatik izan ez balitz. Hara, titietaraino nago heroiez. Manera onak dituztenez, batez

Eskerrak salbatzaile ahalguztidun bik libratu duten bataila, ze nekez erdituko zen aipatu ere egiten ez duen emakumea bestela

ere. Ezinbestean leherrarazten naute azken horiek.

Dena den, ez dut xede inor epaitzea, ze kontua ez da nork zer esan duen. Kontua da zerbaitek huts egiten duela pelikulan. Uste dut ahuleziak preziagarri egiten gaituela erakutsi digutela; uste dut ausardiak preziatu egiten zaituztela erakutsi dizuetela. Babesgabe gustagarriago gara; borrokalari gustagarriago zarete.

Parentesi bat, bide batez: zalantzatik abiatuta ari naiz idazten. Ez naiz soziologian aditua. Ez antropologian. Ez psikologian. Ez filosofian. Ezin, hortaz, gizakion jokabidearen inguruan inolako baliozko argibiderik eman. Askotan amorratzen naiz arratsaldetako debate *mainstream* horietan etxean erditzeko erabaki informatuaz tutik ez dakitenei hitza eman eta argudiatzen dituzten astakeriei nolabaiteko sinesgarritasuna ematen zaienean. Duda izpirik egon ez

dadin, beraz: pertza sutatik kendu eta epeletik jarduten ari den tertulia-kide bat naiz, besterik ez.

Agian, gustagarri eta preziatu izateko nahia bada naturazkoa. Finean, erabat hauskor jaiotzen den espeziea gara eta maitasunari zor diegu biziraupena. Maite ditugulako babesten ditugu gure kumeak. Funtsean elkarri lotzen gara etengabe. Dena da atxikimendu. Eta, beharbada, era berean da naturazkoa loturak dakarren elkarrekiko babesa. Aitzitik, normala ez dena da harreman heterosexualetan babes hori bilatu eta eraikitze dugin modua. Ze, babesak ez du heroismoarekin zerikusirik. Horregatik diot istorio erromantikoetako forma belikoaz gain babesak baduela beste molde bat. Babesa bada zaintza. Bada burujabetasuna. Bada errespetua. Bada konplizitatea. Bada askatasuna. Bada ardura. Bada konfiantza. Bada estimua.

Neronek ere, erreklamazioa idatzi duen aitzak bezalaxe, haurdunaldia zuen kontua ere badela uste dut. Eta, horregatik, ekografietara ez ezik, bestelako hitzorduetara ere nirekin etor zaitezten nahi dut. Baina ez zaitut bizkartzain behar. Ez dut bozeramailerik behar. Ez dut heroirik behar. Ez dut nire hobe beharrez erabakiko duen inor behar. Ez zaitut behar bidea urratzen nire aurretik. Aldamenean nahi zaitut. Epairik gabe. Presente. Adi. Maitekor. ●